

Oxfam Intermonek antolatutako, zainketa gizarte antolakuntza eta etxeko eta zainketako emakume langileen egoera eta eskubideei buruzko laburmetraia lehiaketa
Informazioa eta oinarriak.

1. Helburuak:

- Euskal Erkide Autonomoan eta munduan, etxeko emakume langileen egoera azaltzea bideo sorkuntzaren bidez. Eskubide zibil eta laboral eza aditzera ematea.
- Etxeko emakume langileen testigantzak agertzea, zuzenean edo zeharka, historia ekintzaileekin bat eginik eta euren bizimoduan zein beren familian duten ondorioak erakutsiz, estereotipoetan erori gabe.
- Lan- sormenaren bidez, zainketa gizarte antolakuntza eta bertoko zein atzerriko emakumeenganako ondorioei buruzko eztabaida zabaltzea.
- Zainketa kudeatzeko ideia berriak lantzea, familia barruko erantzunkidetasunetik hasita (generoen arteko ardura banaketa zuzena), erkidego mailan eta instituzionalean.
- GKEen sentibilizaziorako bideoen estiloa berritzea, genero rolen inguruko estereotipoak eta emakume migratuei buruzko aurreiritziak baztertzea.

2. Arduraduna: FUNDACIÓN OXFAM INTERMÓN, egoitza nagusia: Barcelona, Gran Via de les Corts Catalanes, 641 - 08010 Barcelona, IFK G-58236803.

3. Hartzaileak: Euskal Erkidego Autonomoan bizi diren 18 urtetik gorako pertsona bideo-sortzaileak, adin mugarik gabe: zinema ikasle edo graduatuak, ikusi-entzutezko komunikazio edo arte ederretakoak; bideo sortzaile amateurrak, ... Deialditik kanpo geratuko dira Oxfam Intermonekin lan-kontratua duten pertsonak.

4. Baldintzak:

- Laburmetraiak DOKUMENTALAK zein FIKZIOZKOAK izan daitezke, animazioa erabil daiteke baita ere.
- Bideoak euskaraz zein gazteleraz egin daitezke. Ahal izanez gero, aukeratu ez den hizkuntzako azpitituluekin.
- Norbanakoak edo taldeak aurkeztu daitezke, talde edo partaide bakoitzeko gehienez 3 lan aurkeztuko delarik.
- Edozein dispositibo erabil daiteke lanak egiteko (Smartphone, bideokamera, kamera digitala, webcam...).
- Bideoak formatu horizontala erabili behar dute.
- Postproduktzioarako edozein teknika onartuko da.
- Lanek originalak izan behar dute. Erabilitako musika eta irudi originalak, copyright librekoak edo autoreen baimenaz erabilitakoak. Antolatzailea ez da erantzule izango, aurkeztutako lanetan egile eskubideen urraketarik gertatuz gero.

5. Luzera: 5-10 minutu bitartekoak, gehienez.

6. Epea, bideoen aurkezpena eta botazioak:

- Izena eman eta lanak bidaltzeko epea 2021ko apirilaren 30ean bukatuko da 23:59etan (epea bukatutakoan bidalitako lanak ez dira onartuko).
- Bideoak wetransfer lotura bidez honako helbide honetara bidaliko dira:
prensabilbao@oxfamintermon.org
- Bideoen formatuak Youtubekin bateragarri izan behar du.
- Bideo bakoitzarekin batera, sortzailearen izen-abizena, kontakturako telefono zenbakia eta helbide elektronikoa, NAN eta herria eman behar ditu; baita ere lanaren azalpen laburra eta izenburua.

- Taldea bada, taldearen izena eta partaide guztien datuak azalduko ditu: izen-abizena, kontakturako telefono zenbakia eta helbide elektronikoa, NAN eta herria.
- Epaimahaiak aukeratuko du irabazlea.
- Ikusleen saria ere izango da.

7. EPAIMAHAIA: Epaimahaia Oxfam Intermonek izendutako 5 pertsonak osatuko dute gutxienez:

- Oxfam Intermoneko bi (2) tekniko,
- Etxeko eta zainketako emakume langile bat (1) "Bizitza Zaintzen" ikerketan parte-hartzaile (Bizkaiko Foru Aldundiak 2017ko deialdian lagundutakoa) y
- Ikus-entzunezko arloan jakitun diren pertsona bi (2) (EHUko Gizarte eta Komunikazio Fakultateko irakasle bat (1) eta zinemagile bizkaitar ezaguna (1)).

Antolatzaileek pertsona gehiago deitu dezakete epaimahai osatzera, beharreko baderitzote, lehiaketaren gaiarekin loturarik badute. Edozein kasutan, epaimahaiak pertsona kopuru bakoitia izango du, epai bakoitzak boto bat baino ez duelarik izango. Epaimahaiko kideek, lehiaketaren irizpideak kontutan izanda eta norbere profesional zein bizi eskarmentuaren arabera askatasunez emango dute botoa. Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da, bai bideo irabazlea, bai ikusleen botaziorako lanen aukerategia.

8. Baremazioa: Oinarrietan agertzen diren baldintzak betetzen dituzten aurkeztutako lan guztiak barematuko dira. Aukerarako irizpideak ondoren agertzen diren elementuak izango dituzte kontutan:

- a. Proposamenen originaltasuna, kalitate teknikoari baino balio gehiago emango zaio
- b. Lehiaketaren helburuekin bat etortzea, dokumentu honen hasieran azaldutakoaren arabera.
- c. Ezinbestekoa izango da hizkuntza inklusiboa erabiltzea.
- d. Pertsonen edo talde berezien kontra doan lanik ez da onartuko (emakume, dibertsitate funtzionala, LGTB, pertsona arrazaliziatuak) edota hizkuntza sexista, homofobia, arrazista darabiltenak edo beste kultura, erlijio edo pertsona batzuk errespetatzen ez dituztenak.

Aintzat hartuko dira:

- e. Gaia baikortasunez azaltzea, hobetzeko grina, ekintzailtza eta borroka erakusten duten historiak.
- f. Kultura aniztasuna lantzen dutenak, errealitate kultural anitza agertzen dutenak eta hausnarketa bultzatzen dutenak elkarren arteko harremanaz, elkarbizitzaz, partaidetzaz, kulturen arteko elkarriketatik.
- g. Ezberdintasunen onarpena eta berroren zein aniztasun kultural, etniko, nortasunezko, genero eta politikoaren gizarteratzea.
- h. Pertsonak, bakarka edo taldeka, beren eskubideak gauzatzeko garatzen dituzten baliabide eta estrategiak ikustera ematea.
- i. Gizartearen borroka mundu bidezko, zabal eta solidarioaren alde giza eskubideen urraketaen kontra eginez eta erantzun kolektiboa exijituz.
- j. Paternalismoa, biktimizazioa edota sentsazionalismorik ez erabiltzeko gai izatea, genero rolen estereotipotan ez erortzea, ezta etxeko eta zaintzako lanean diharduten emakume migratu eta bertokoekiko aurreiritzietan.

*** Lehiaketaren antolatzaileak, lehiaketaren gaiarekin zerikusirik ez duten edota gutxieneko kalitate teknikorik ez duten lanak lehiatik kanpo uzteko eskubidea berekiko gordetzen du.

8. Sariak:

Sari nagusia: Aukeratutako lanak diploma eta 1.500€ko (mila ta bostehun euro) diru saria jasoko du. Sari banaketa, Bilbon, 2021ko irailan izango da, laburmetraia finalistak azalduko diren saioan.

Ikusleen saria: epaimahaiak aukeratuta, finalera iritsitako laburmetraiak, lehiaketari bukaera emateko 2021eko irailan izango den saioan proiektatuko dira. Bertaratutako ikusleek nahiago duten obrari botoa emateko aukera izango dute. Boto gehien biltzen duen obrak eskuratuko du saria. Kategoria honetako irabazleak diploma eta 500€ (bostehun euro) jasoko du.

10. Oharrak:

- Lehiaketan parte hartzen duenak, lehiaketara aurkeztutako lana berea dela adierazi eta bermatzen du, egile eskubideen jabe dela, jabetza intelektualari dagozkion eskuin guztiak barne, tartean ondarearenak eta lana ustiatzekoak, edukiaren ardura osoa hartuta.
- Parte hartzaileak espresuki libratzen du Oxfam Intermon, indemnitare osoa bermatuz, hirugarren baten edozein erreklamaziotik.
- Egileek beren obrei dagozkien erreproduzio, komunikazio eta banaketa publiko eskubideak lehiaketari lagatuko dizkiote, erabileran betiere egileak aipatuko direlarik.
- Aldaketak eta baliogabetzea: Oxfam Intermónnek beregain gordetzen du oinarriotan aldaketak egiteko eskubidea lehiaketaren helburuak ondo betetzeko izaki; baita ere luzatu, laburtu edo baliogabetzeko, bidezko arrazoirik edo ezinbesteko arrazoirik balego Oinarriok deskribatutako moduan ezin egin ahal izateko. Hori gertatuko balitz, ahal bezain laster jarriko ginatke harremanetan inplikaturako pertsona guztiakin.
- Erantzukizuna: Oxfam Intermón ez da erantzule izango Lehiaketan eraginik izan dezakeen ezergatik, hirugarrenen egin bada, ezta horren ondorioz partaide, irabazle zein hirugarrenen jasan dezaketen kalteetan.
- Lehiaketa honetan parte hartzeak esan nahi du oinarriok osotasunean onartzen direla eta lehiaketari buruzko edozein erabakitan Oxfam Intermónen irizpidea onartuko dela baita ere.
- Harremanetarako: dudak, galderak, erreklamazioak:

accionesenelterritorio@oxfamintermon.org Oxfam Intermón. Gran Vía de Les Corts Catalanes, 641 08010 Barcelona

Datu babeserako politika: Lehiaketan parte hartzen dutenen datuak FUNDACIÓN OXFAM INTERMÓN (OXFAM INTERMÓN) erakundeak erabiliko ditu lehiaketan parte hartzeko, legezko beharrak betetzeko eta, irabaziz gero, saria eman eta saridun dela zabaltzeko. Eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta zure datu pertsonalen babeserako beste eskubide guztiak gauzatzeko, honako helbidera jo dezakezu: dpo.oxfamintermon@Oxfam.org

Norbere datuen erabilerari buruzko informazio gehiago ezagutzeko, ikus gure [pribatutasun politika](#).

Antolatzaile



Laguntzaile

